

KANALAK

Gure produktua eskeintzen dugunean, gure helburu nagusia pertsona gehienek ezagutzea da. Horretarako, hainbat kanal erabiliko ditugu gure produktua saltzeko garaian. Honegatik, gure kanala zuzena izango da gure kasuan webgune bat egingo dugulako, non gure bezeroak produktua erosi al izango dute.

Gure produktua saltzeko webgune propio bat sortuko dugu, bertan informazio guztia eskuragarri jarriko dugu: nola erabili, kostua, gurekin kontaktuan jartzeko leku bat mezuak bidaltzeko, gure kontaktu pertsonalak, hau da, gure telefonoak webgune atal batean jarrita egongo dira sare sozialekin batera... Webgune honetan, gure orrazia erosteaz gain, spraya ordezkatzeko aukera edukiko dute gure bezeroak.

Bezeroek, gure produktua erosteko edo beste arazoren bat badute, gure webgune txat birtual bat egongo da. Haiek, edozein arazo badute, arazo hori edo zalantza konpontzen lagunduko dute. Datuetan, gure telefono zenbakia, gure korreoa eta gure helbidea egongo dira, gurekin harremanetan jartzeko. Enpresa hau aurrera joaten bada, hau da, Europar mailan saltzen hasiko bagina, gure txata hizkuntza gehiagotan jarriko genuke, adibidez, ingelesez, alemanez, frantsesez edota italiarrez. Gainera telefono zenbakiak jartzerakoan Europa mailetako ordutegi desberdinak kontuan hartu beharko ziren eta herrialde bakoitzeko bezeroei ordutegi desberdin bat egokituko genizkien.

Hala ere, Amazon bidez ere saltzeko asmoa dugu leku gehienetara iristea lortzeko. Amazon enpresa aukeratu dugu, munduan zehar saldu dezakeelako. Beraien webgunean ikusi dezakegun bezala, kuota bat ordaindu beharko dugu bertan saldu ahal izateko, hori ordaindu ondoren gure produktua Amazonen saldu ahalko dugu. Bertan, gure produktua eskainiko dugu eta etxeetara bidaltzeko aukera izango du enpresa honen bitartez.

Publizitatea beharrezkoa izango da gure produktua ezaguna egiteko pertsonen artean. Honetarako, sare sozialak erabiliko ditugu gure orrazia sustatzeko. Gehien erabiltzen diren sare sozialekin iragarkiak jarriko ditugu, adibidez; Instagram, Tiktok eta Facebooken.

Gaur egun, ezagunak diren influenzer batzuekin kontaktuan jartzea gustatuko litzaiguke, azkenean, beraiek dira, pertsonengan influentzia handiena duten pertsonak, beraien bideo bakar batek milioika erreproduzio edukitzea iristen delako. Honi esker, gazte askorengana iritsi ahalko gara eta beraien arreta gehiago deitzeko zozketak egitea proposatu dugu, bai influenzer-en bitartez baita gure webgunean ere. Hau egiteko, webgunean izena eman beharko da eta izen guztien artean bat aukeratu. Horretaz gain, influenzer-ei deskontu kode bat sortuko diegu hilabete

baterako eta beraiek beraien jarraitzaileei honi buruz aipatzea pentsatu dugu, horrela, deskontua dela eta, pertsona gehiagok nahiko dute orrazia erosi.

Sare sozialekin jarraituz, gure kontu propioa irekiko dugu hainbat sareetan. Bertan, produktuaren informazioa, bideoak, argazkiak eta berriak jarriko ditugu. Gure perfilean link bat erantsiko dugu webgunera errazago iristeko eta influencer-ekin eta erosleekin interakzioa asko erraztuko du, bertan ere kontaktatzeko baliabideak daudelako.

Azkenik, ile-apaindegiekin hitz egitea pentsatu dugu. Gure herrian, hau da, Zumarragan hainbat ile-apaindegi daude produktuak saltzen dituztenak. Gure herria aukeratu dugu, guk ezagutzen ditugun ile-apaindegiak direlako eta bestalde, beraiekin harremanetan jartzen bagara, guretzat errazagoa izango delako gure ideia bertan probatzea eta erosteko aukera gehiago edukiko ditugulako. Honetarako tratatu bat egin eta beraiei zerbeit ordaintzea pentsatu dugu, saldutakoaren proportzio bat emanaz. Ideia honek funtzionatuz gero eta produktua ezaguna izaten hasten dela ikusiz gero, ideia zabaldu dezakegu eta hainbat puntu zehatzetan, lehenengo Euskal Herrian eta gero Espainian zehar ile-apaindegi edo dendetan probatzeko eta erosteko aukera aztertuko dugu. Gainera, erakusleihoetan lekua badago, kartel bat jartzea pentsatu dugu, gure produktua bezero gehiagori iritsi al dezan.